

## Bezeroekiko harremanak

Bezeroak mantentzeko eta guri fidelak izateko, ekintza honek erabiliko doguz:

- **Notifikazioak:** bezeroek gure aplikazioarekiko fideltasuna mantentzeko eta euren erabilera mantentzeko, hileroko gastuen notifikazioak helduko deutsez mobikorrera. Aplikazioaren premium-a daukien kontsumitzaileei ez jakie bakarrik hileko gastuen informea irekitzeko notifikazioa ahilegatuko, eguneko eta asteko gastuena be helduko jakie. Mota horretako notifikazioaz aparte, egingo doguzan zozketa desbardinetan sartzeko abisatzen notifikazioak helduko jakez be. Baita beherapenak diran momentuetan abisatzen be notifikazioak helduko jakez, bai aplikazio ohikoa zein premium-a daukien kontsumitzaileei.
- **Deskontuen zozketak:** hileroko zozketa desbardinak eta erakargarriak egingo doguz, kontsumitzaileek gure sistema daukiezan dendatan egingo daben erosketetan kontuak eukiteko. Modu honetan, lortuko dogu gure aplikazioa erabiltzen jarraitzea, alde batetik zozketak kuriosidadea sortzen dabelako eta dibertigarriak direlako, bestetik, kontuak izatea oso onuragarria dalako kontsumitzaileentzat, dirua aurrezteko eta nahi dabezan gauzak erosteko.
- **Merkatarien elkartekaz eta denda handiakaz bilerak egin:** merkatarien elkartekaz bilera batzuk egingo geunkez sei hilabetero eta beste batzuk denda handiekin. Bilera honeetan aktualizazioak azalduko geunkez. Horrez aparte, euren proposamenak entzungo dira eta hobetu ahal diran esan ahal izango dabez, noski, gure enpresak hori guztia kontutan hartuta. Honela, lortuko dogu bezeroak gure sistemagaz pozik egotea eta erabiltzen jarraitu nahi izatea. Personek askotan eskertzen dabe gertuko harremana, hortaz, hau modu oso baliagarria da eurentzat eta guretzat, hobetzeko aukera emoten deuskulako eta euren gudan segurtasun sentimendua.
- **Itzulketarako dirua berreskuratu baino gorde aplikazinoako kontuan:** kontsumitzaileek gure aplikazioa erabilita itzulerak egiteko erraztasuna daukie eta hori gitxi balitz be, itzultzen daben produktuaren dirua berreskuratu baino, aplikazinoako kontuan gordetzeko aukera izango dabe. Hori eginda, nahi daben momentuan, iraungipen-aldia euki barik, erabili ahal izango dabe diru hori gure sistema daukien edozein dendatan, gehien gustuko edo behar dabena erosteko. Honela, erosketak egiteko erosotasun gehiago eskainiko deutseguz gure bezeroei, euren fideltasuna lortuz.
- **Saldu osteko zebitzua:** dendak sistema osoa erosiz gero, hortik aurrera zerbitzu desbardinak izango dauz gure partetik. Hasteko, edozein arazo egotekotan sistemagaz edo dendan instalauta dogozan aparatuekaz, deitu ezkeroko tekniko bat bidaliko dogu egun horretan ahalik eta azkarren konpontzeo.. Honengaitik ez dabe ordaindu behar izango jada hileroko ordaintzen dabelako mantenimendu batengaitik. Beste zerbitzu bat aplikazioan edo sisteman egiten doguzan hobekuntzak zuzenean euren eukitea izango da, hobekuntza egiten dan momentutik arazorik gabe euren eukiko.